

Iñaki Martínez de Luna

Afganistarren tankerako euskaldunak

Horrela zioen, ARGIAN, duela aste gutxi erreportaje batek: “Quetta kulturantzira izan daiteke, baina inolaz ere elkarbizitzaren eredu”. Eta, testu horretan, Quetta (hiri hori Pakistanen egonda ere, afganistarrak omen dira nagusi) izenaren ordez Euskal Herria idatziko bagenu? Izan ere, bertakoen artean egon badago erotikako ezberdintasun ugari: espainiar kulturakoak, frantziar kulturakoak eta euskal kulturakoak batetik, gehi gurera iristen ari zaizkigun etorkinak, bestetik. Badugu, beraz, aniztasun kulturala. Baina, elkarbizitza?

Ezekotan nago, ezberdina den gutxi onartzea zaila zaigulako eta ezberdin pentsatzen dutenak norberaren “egia propio”ra erakartzen saiatzen garelako, beste izaera horien zilegitasunaz jabetu gabe. Eta beste horiek gutxi bat bihurtzeko ahalegin horietan porrot eginez gero, “egokor horiek” etsaitzat jo ohi ditugu. Beste herrialde batzuetan, ostera, malguagoak dira.

Gure ezaugarri kultural horren isla EAeko azken hauteskundeetan antzeman da. Euskal nazionalista edo abertzale askok ezin zuten pentsatu alderdi espainiarren bat Jaurlaritza hartzera iritsi zitekeenik, hori gauzatu denean harri eta zur geldituz. Alegia, Euskal Herri abertzale batekin amesten duten herritar asko ez ziren jabetzen espainiar sentitzen diren hurkoek agintea hartzeko zuten posibilitate erreala; mehatxu gogaikarri hori gogor arbuatzen zuten. Alegia, ametsak errealtatatzat hartuta, herritar ez-abertzale –ezberdin– horien existentziari eta indarrari uko egiten zieten. Zurruntasun kulturala, norberaren ideiekin bat ez datorren begi-bistako errealtatea ukatzeraino iristen dena.

Izan ere, politikan behin eta berriz antzematen da ezberdina denaren aurrean dugun errefusitsu hori; adibidez, abertzale eta espainiar sentitzen diren artekoa. Areago, hain dago sartuta zurruntasun hori gurean, non abertzalearen partekatzen dutenak ere etsaituta dauden elkarrekin. Hortaz, abertzalearen indarra ezin da ulertu EAJ + Aralar + EA +



ALEX LARRETXI

Batasuna + Hamaika Bat batuketaren arabera, enbor bereko batugai horien artean gainditu ezinezko ezberdintasunak daudelako. Letra-zopa hori ez da logikoa. Zenbait diferentzi ideologiko egonda ere, halakoak gaindituko lituzkeen oinarrizko batasun bat behar da, batez ere abertzaletasunari aurre egiteko asmotan elkartu diren aurrean. Baina, indar politiko horiek duten elkarri ulertzeko ezintasuna ez da beti ideologikoa; gakoa, arestian esandako gure zurruntasun kulturean datza: gu geu erabat bezalakoa ez dena etsaitzat jotzera garamatza.

Hasierako erreportajera itzuliz, pentsatzekoa da Quettan dagoen egoerara hemen ez garelako iritsiko: “Taldea ezberdinen arteko tiroketak, bazarreko postuetako ezlandak, hilketa selektiboak eta bahiketak dira egunerokotasunaren taupadak”. Baina, Euskal Herria desage-

« Euskal Herri abertzale batekin amesten duten herritar asko ez ziren jabetzen espainiar sentitzen diren hurkoek agintea hartzeko zuten posibilitate erreala (...). Ametsak errealtatatzat hartuta, herritar ez-abertzale –ezberdin– horien existentziari eta indarrari uko egiten zieten. Zurruntasun kulturala, norberaren ideiekin bat ez datorren begi-bistako errealtatea ukatzeraino iristen dena »

rrarazteko ez dago halakoren beharrik ere; horretarako nahikoa da eta “ahaide politiko”en arteko ezintasuna elkarri ulertzeko. Gu geu erabat bezalakoa ez dena etsaitzat jotzeak herri bezala desagertzera garamatza.

Euskal Herrian dugun aniztasunari erreparatuta, soilik ezberdintasunak onartuta izango zaigu posible egitasmo politiko bat eraikitzea, non gehiengo zabal batentzako lekua egongo den. Hasteko eta gutxienez, euskal nazionalista edo abertzaleengandik abiatuta. ■